


# PR -BI 182

## Barnealdeko bideetan barrena. Por los caminos del interior.

| Km | | |
|---|---|---|
| 10,2 | 325m | 2h 45' |

1 2 2 2




Gozatu Urdaibaiko barnealdeko paisaiaz, baso landaketen eta landa-gune txikien mosaikoaz, baserriaren nagusitasunaz.




*Disfruta del paisaje del interior de Urdaibai, un mosaico de plantaciones forestales y pequeños núcleos rurales, dominio del caserío.*


San Roman




Muxika dorretxea
*Torre de Muxika*

Muxika Urdaibaiko udalerri zabal eta ezezagunenetako bat da. Sosegua lagun, xarma handia du ingurune horrek.

Ariatza auzotik abiatuta, errepidearekiko paraleloan doa ibilbidea, San Migel baseliza dagoen Usparitxa auzoraino. Ibilbideak auzoa zeharkatzen du, eta baso-bide batetik jarraituz Txakale auzoaren gailurrean dagoen Errekatxugoikoa baserrira heltzen da. Bertatik, udalerriaren eta eskualdearen zati baten ikuspegi politaz gozatzeko aukera izango dugu.

Gorozikatik San Roman aldera doan baso-pista zabalera igoko gara. Han, Urkietako arte ikaragarriak, ongietorria egingo digu Besangizera. Auzo-bide polit batek Besangiz eta San Roman lotzen ditu, eta han baseliza eta Muxika dorrea ikusi ahal izango ditugu. Bidezidorra Kurtzero auzora jaisten da eta bertatik Bizkaibuseko zerbitzua erabiltzea gomendatzen dugu, Ariatzara itzultzeko.

Muxika es uno de los municipios más extensos y desconocidos de Urdaibai. El sosiego acompaña a este entorno que esconde un gran encanto.

Partiendo del barrio Ariatza el recorrido discurre paralelo a la carretera hasta alcanzar el sendero que asciende al barrio Usparitxa, donde se encuentra la ermita de San Migel. El itinerario cruza el barrio para continuar por un camino forestal hacia Errekatxugoikoa, caserío que se encuentra en lo más alto del barrio Txakale, desde donde podremos disfrutar de unas bonitas vistas del municipio y parte de la comarca.

Ascendemos a la amplia pista forestal que desde Gorozika se dirige hacia la zona alta de San Roman, donde una monumental encina, Urkieta, nos da la bienvenida a Besangiz. Un bonito camino vecinal une Besangiz con San Roman, donde podremos contemplar la ermita y la Torre de Muxika. El sendero desciende hasta el barrio de Kurtzero, desde donde recomendamos utilizar el Bizkaibus para volver a Ariatza.

## eta gero...
## y después...

Ezagutu Muxikako auzoak. Zatoz Berroiara eta gozatu txakolinaren paisaiaz eta zaporeaz.

Ibarruri auzoan San Pedro baseliza duzu zain, Bizkaiko gotikoko bitxi txiki eta ederra (XII. eta XV. mendea). Urdaibaiko baserri nabarmen batzuk ere aurkituko dituzu bertan, hala nola Undajauregi eta Undaigoiti. Horietako batzuk altxor txikiak dituzte gorderik: labe zaharrak, ferratokiak, garbitokiak...





Descubre los barrios de Muxika. Acércate a Berroia y disfruta del paisaje y sabor del txakoli.

En el barrio de Ibarruri te espera la ermita de San Pedro (s. XII y XV), una pequeña y bella joya del gótico de Bizkaia. También podrás encontrar alguno de los caseríos más destacados de Urdaibai, como los de Undajauregi y Undaigoiti. Algunos de ellos conservan pequeñas joyas como viejos hornos, potros de herrar, lavaderos...